

BARRIALDIA.- ROUSSEAU (1712-1778)

Barri-aldiko jakitunen artean bereizia dogu J.J. Rousseau. Besteak baiño ezkererago dago eta gizarloan argiagoa da.

Onen ardura nagusia gizakia bera eta beronen gizarteratzea da.

Sarritan Rousseau agertzen da gizon basatia ona dala eta gizon gizarteratua txarra dala esaten, baiña ez da ori. Korapillotsuagoa da.

Ez diño gizona berez dala ona eta gizarteak txar biurtzen daua, ez diño basora joan bear dala artzagaz bizi izatera, beste au baiño: txarto eratuta dagoan gizartea aldatu egin bear dala.

GIZONA GIZARTERAKO EGIÑA

Rousseau'k ba-daki, eta alan diño, gizona gizarterako egiña dala, gizonak gizartea bear daua eta antxe baiño ez dala zorionsua. Baiña ba-diño gizona gizartean txarreratu egiten dala, gaiztotu egiten dala be. Iluntasun oneri, geroago Freud'ek "jakintzan dagoan aiena" esango dautso.

Bere ustez, gizonak gizartean maitasuna ta onartua izatea bear dau eta batzutan, ori lortzeko, egin bear ez leukena egiten dau. Ez diño ba, beste barrialdikoak diñoen au: "Gizona berez ankerra da eta gizarteak bigundu bear dau". Baiña bai, gizona sarritan gizartean ankerrago biurtzen dala.

Ortik sortzen da Rousseau'ren gurari bizia "gizarte-ituna" sortzeko: Gizona ez datela sartu gizartera beartuta, berak nai daualako baiño. Ez dago esana egin bearrik, agintariak bidezkoak ez diranean.

Gizona gizartean txarrago biurtzen ba'da, orrexegaitik da: Gizartera beartuta sartu dabelako eta ez gizarte-itunaren bidez.

Nork sortu eban gizarte gogorkerizko ori? Ba, lur-zati bat esitu ondoren, lenengoz, "au neurea da" esan ebanak. Eta ingurukoak ori onartu ebelako.

Voltaire asarretu egiten zan ori entzutean, baiña Rousseau'k esan gura dauana ez da besterik, batzuk jabe biurtzen dirala eta beste asko ez.

Orrelan gizarteak gizona ondasun-zale biurtzen dau eta basagizona beretzat bizi dan lez, gizartekoak besteena bear dau.

ASKATASUNA

Orregaitik menperatzen dauz gizonak beste gizon batzuk eta gero menpekoak eukitea ona dala esaten dau. Ori esakeran au aiztuten dau: Askatasuna ta errugabetasuna antzekoak dirala, askeak eta errubakoak baiño ez dauz onartzen oneik. Gizakiak ez dabe nai askatasunik besteentzat, norberarentzat baiño. Orrek biurtzen dau oker, gizarte-gizona. Kant'ek esango leuken lez gizonaren gizartekotasun-eziña da au".

Ara zer diñon Rousseau'k "Gizarte-ituna" bere liburuan: "Laterri sendo bat sortzea nai ba'dozue, ertzak, al dan bestean, urreratu egizue; ez onartu eskekoak eta aberatsak batera izatea. Ertz bi orreik gizarte-bizitzarako kaltegarri dira.

Locke'ren askatasuna ta Rousseau'rena ez dira bardiñak. Locke'rentzat askatasuna ta jabetza batera datoz, Rousseau'rentzat batera datozenak askatasuna ta berdintasuna dira. Locke banaketara doa, Rousseau, ostera, alkar-laguntzara.

Orregaitik idatzi eban Rousseau'k eziketari buruz "Emilio" bere liburuan, eziketa ez dala irakatsiak emotea, balioak eskintzea, gizarte-balioak eta alkar-laguntzarako bidea eskintzea dala eta orretarako oiñarririk onena erlejiñoa dala.

AURRERAPENA

Barrialdiko beste kideak indar aundia emon eutsen jakin-gaien eta trebe-bideen aurrerapenari, baiña Rousseau'k geiago begiratzen dautso nekez bizi dan gizakiari: "Gizona, aske izateko sortua, toki guztietan espetxean bizi da. Besteen ugazaba dala uste izaten dau eta eurak baiño be menperago bizi da".

Aurrerapenak ez-jakiñak izatetik ateraten gaitula uste dabe besteak, baiña Rousseau'rentzat kalte geiago egiten dauku gauzak txarto ikasi izateak, ez jakiteak baiño.

Gaurko erara berba egiñez, esango geunke, Rousseau'ren demokrazia ez dala ordezkoko aukeratzea, norberak parte artzea baiño: "Buru-jabetza ez jako iñori emoten, aldunak ez dira erriaren ordezkokoak, erriaren aurrekoak dira eta ezin leikee ezer ebatzi".

BENETAN BARRIALDIKOA

Emen agertu dogun pentsakerea agertuta, itaun au egin geinke: Ba-da Rousseau Barrialdiko (modernidad) diranen kidekoa?

Engels'ek "Anti-During" bere liburuan zalantza au agertzen dau, baiña Rousseau'ren bizitza erromantikoa ikusita, bere maitasun-bizitza larria kontuan dala, talde orretatik alboratzen daben zertzeladak itzi alde batera eta taldean sartu bear dala diño, esku-zuri feudo-zaleen aurka agertzen dalako. Ez eban lagundu feudoak kentzeko, baiña bai nobleen eta eleiztarren eskutik kendu eta burgesi barriaren eskura aldatzeko.

Bere bizitzearen azkenean idatzi eban "Ibiltari bakartiaren gogapenak" deritxon liburua. Berak ez argitaratzeko eskatu arren, argitaratu zan. Or agertzen da orain egin dogun neurketaren antzeko zerbait.

OLAZAR'tar Martin'ek